



Hainbat irakasle indigena embera, *Etnolingüistika Diplomatura*-n embera hizkuntzari buruz eztabaidatzen. Gero haiek irakatsiko diete emberaz idazten haien komunitateei. ANDONI BARRERA

Idaztearen balioa

Kolonbiako Choco departamenduko embera hiztunak haien hizkuntza idazten hasi dira lehen aldiz. Hiztegia eta material pedagogikoa biltzen eta irakasleak alfabetatzen ari dira, hurrengo belaunaldiek emberaz egin dezaten.

Iñaki Lasa

Nekez entzuten da gaztelera Kolonbia mendebaldeko Choco departamenduko emberen artean. Ez dute ama hizkuntza, eta nabari da hori kalean. Embera hizkuntzak du bizitasun osoa Chocon. Emberaz jolasten dira haurrak, eta gaztelaniaz esaldi solte batzuk besterik ez dakite 16-18 urte bitarteko emakumeek. Hiztun askorik ez duen hizkuntza da —70.000 lagunek dakite emberaz—, baina oso maila handian

gordetzen da. Hori bai, ahozko komunikazioan gertatzen da hori soilik. Idatzi eta irakurri gazte-eraz egiten dute, ez baitago zer irakurri jatorriko hizkuntzan.

Emberaz ez da sekula hitzik idatzi. Indigenek aspaldi hartutako erabakia da. Komunitatea babesteko, kultura idatzigabea izatea erabaki zuten. Alegia: alfabetatu —edo ez— izan arren, idazten ez duen gizartea bihurtu ziren embera hiztunak. Ahozko-tasunean oinarritu zuten haien harresi komunikatiboa; azken horma, kanpoko eraso askotari-koei aurre egiteko.

Hala bizi izan dira mende luzez, munduari bizkarra emanda, her-tsi, embera arrotzei ireki gabe. Mendebaldeko gizartearekin eta mestizoekin mesfidatiak dira. Ez da harrizkoa, urte luzez pairatu dutena kontuan hartuta. Kolonizatzailen basakeriak izan ziren lehenik, paramilitarren eta militarren erasoak orain. Behin eta berriz desplazatu dituzte: urrea ustiatzeko aurrena, urte beltz bila gero. Antzinako sendabideen sekretuak lapurtzen ere saiatu dira trikimailu bidez.

Baina jarrera itxi horrek bide-gurutzera eramán ditu emberak.

Kolonbiako hezkuntza sistemak ahuldu egin du haien hizkuntza. Azken 30 urteetan ezarri den Kulturarteko Hezkuntza Elebidunak (KHE) kalte egin die, eta ez die lagundu hezkuntza euren kulturaren arabera moldatzen. Asteaz bizpahiru ordu egiten dituzte emberaz. Horrek bizkortu egin du gizartean gaztelertzea. Horregatik, «mozorroturiko gaztelertze» gisa ikusten dute KHE.

Egoera gorriaz jakitun, erabaki mugarrira hartu zuten 2008an. Zailtza asko eduki ondoren, hizkuntza eskolara eramatea erabaki zuten; lehen aldiz idaztea. Ore-

wa elkartek —indigenek Chocon duten autonomia murriztu kudeatzen duen elkarte nagusia— bultzatu zuten egitasmoa baztar batean.

Gaztelertzea ekarri duen hezkuntza sistemak berak ireki zuten bidea. Kolonbiako legedian aurre-rapausoak egon dira; Kolonbiako Gobernuak eskolatzea herrialdeko bazter guztietara zabaltzeko apustua egin du. Baina ez du txoko guztietara iristeko ahalmenik. Horregatik, azpikontratatu egiten ditu zerbitzuak. Chocon, 2008tik Elizbarruti Katolikoak du hezkuntza sistemaren ardura, eta oso jarrera ona du indigenekin eta haien kulturarekin. Orewa elkar-tearekin elkarlanean aritzen da. Irakasleek embera hiztunak izan behar zutela erabaki zuten. Gaur egun, irakasleen %90 dira emberak. Baina muga handi bat dauka-

te: alfabetatu gabeak dira haien ama hizkuntza bat? Nola eta nondik hasi? Izan ere, gehienek ez dute irakasle titulurik, Batxilergoa soilik; Kolonbiako eskualde txiroenetako eremu pobreeneko batxilergoa, zehazki.

Euskal Herria ispilu

Beraz, nola idatzi lehenengo aldiz hizkuntza bat? Nola eta nondik hasi? Izan ere, embera hizkuntzari buruz idatzitako bakarra kanpoko jendeak idatzi zuen, hiztegiaren bat bazegoen, baina huts ugariekin. Emberaz idatzi eta irakurri nahi bazen, beharrezkoa izan go zen sistema ortografiko bat adostea, alfabeto bat egitea, irakasleak formatzea, material pedagogikoa sortzea... Laguntzarik gabe ekiteko handiegia zen eronka.

Zalantza asko eduki ondoren, 2008an, emberaz lehen aldiz idaztea erabaki zuten

Elizbarruti Katolikoak du hezkuntza sistemaren ardura, eta oso jarrera ona dauka indigenekin

Hala, Baltazar Mecha Olo hizkuntzalari emberak proposatu zuen 2010ean lehen sistema ortografikoa, latindar alfabetoan oinarritua. Aldian aldiko lehen tailerrak antolatzen hasi zen Orewa, eta ekintzaile indigena entzute-suenek parte hartu zuten bertan, haien inplikazioaren adierazle. Lehenengo bilera horietan helburuak finkatu zituzten: probako irakaskuntza proposamena garatu, idazkerarako grafia bateratua aurkeztu eta irakaskuntzarako tresna pedagogikoak diseinatu.

Euskal Herria jo zuten laguntza bila. Fuclako Unibertsitatea EHUrekin harremanetan jarri zen, proiektuan laguntzeko gonbitea eginez. Euskal Herrian frankismoaz geroztik izandako eskolatzatze prozesua ezagutzen zuten, eta bazekien euskara eskola eta unibertsitate mailara bideratu dela azken 30 urteetan. Eskaera horren ondorioz iritsi ziren Chocora 2010ean Andoni Barreña berri-arrak eta Mikel Mendizabal irundarra, EHUko Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedradun gisa.

Hastapenak ez ziren errazak izan, lehen pausok finkatzea ez baitzen batere samurra. 30 bat irakasle parte hartu zuten lehen tailerretan. Beste ezeren aurretik, lehen puntuak finkatu behar zituzten; besteak beste, zein aldaeratan idazteko zuten. Emberak lau aldaera ditu: *topida* [ibaikoak], *eyapida* edo *eapida* [mendikoak], *oipida* [oihanekoak] eta *eperara siapidara* [gezidunak]. Lehen, geografikoki bereizten zi-



Epera pedea, embera hizkuntzan idatzitako irudi alfabetoa, topida aldaeran idatzia. ANDONI BARREÑA



Epera pedea pedai, irudi hiztegia, zuhaitzet buruzkoa. ANDONI BARREÑA

ren aldaerak, hiztun bakoitza bizi zen habitataren arabera, baina, gaur egun, migrazio mugimenduen eraginez, elkarren ondoan bizi dira hiztun ezberdinak. Lehen hiru aldaerak hitz egiten dira soilik Chocon, eta departamendu horretan elkartzen dira embera hiztun gehien-gehienak: 40.000. Kolonbia mendebaldean hitz egiten da emberaz; iparretik hegora. Iparraldean, Panamaraino iristen dira —20.000 hiztun daude Panaman—; hegoaldean, Ekuadorreraino barneratzen da —ehunka indigenek hitz egiten dute—. Guztira, 79 babesgusetan eta 1.497.134 hektareatan zabaltzen da emberen hizkuntza.

Hizkuntza idatziz emateko prozesua Chocoko emberei bideratua zegoenez, ikastaroa eta ondorengo lan guztia lehen hiru aldaeretan egitea erabaki zen. Orduetik, prestakuntza tailerretan idatzitako guztia hiru aldaeratan egiten da beti. Barreñak eta Mendizabalek hasieratik argi eduki zuten protagonista bakarrak emberak zirela, haiek sortu behar zituztela materialak eta erabakiak hartu. Euskaldunak kanpoko aholkulari gisa zeuden soilik. Komunitate

bakoitzak kudeatu behar zuen bere materiala. Barreñak eta Mendizabalek nabarmendu dutenez, garrantzitsua ez zen tresna bera sortzea, material hori nola sortzen den ikastea baizik, etorkizuneko komunitate bakoitzak baliabide hori eraiki ahal izateko.

2010ean lehen pausok eman ondoren, urtebete geroago itzuli ziren bi euskaldunak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailetik eta AECIDetik diru laguntza lortu ondoren. Birritan egon ziren 2011n, eta emberen egoera zailaz jabetu ziren bidaia horietako lehenengoan. Paramilitarrek gelditu-aren armatua aldarrikatu zuten garai horretan. Ondorioz, irakasle askok ezin izan zuten ikastaroan parte hartu. Izan ere, geldidune armatua indarrean dagoenean, komunikazio guztiak eten egiten dira, bideak eta ibaiak moztu egiten dira, eta eremua itxi egiten da. Urtebete lehenago adostutako helburuak lantzeari ekin zitoten. Hala, alfabetoaren osasaren sakondu zuten, hitzak biltzen jarraitu zuten eta material pedagogikoa eratzten hasi ziren.

Urrats garrantzitsua egin zu-

ten iaz. Irakasleentzako etnolinguistikako diplomatura egitea erabaki zuten, formakuntzan trebatzeko. 200 orduko prestakuntza ikastaroa, Fuclaren barnean. 60 postu zeuden, eta 100 euro balio zuten matrikulak —400 bat euroko soldata jasotzen dute hilean—. Askok bi eta hiru eguneko bidaia egin behar zituzten, ostatu hartu, jan... Halere, leku guztiak bete ziren. Fucla parte hartzearekin «txundituta» geratu zela adierazi du Mendizabalek.

Hitzak abiapuntu

Emberak euren hizkuntza idazten hasteko metodologia erabakitea ez zen erraza izan. Lehen aldia izanda, orain arte ez zeukaten ez idazteko ez ikasteko tresnarik, sortu egin behar zituzten. Mendizabalek Acran (Brasil) izandako esperientzia langungarria izan zen metodologia bat sortzeko. Etexa teilatutik hasi ezin den bezala, ezinezkoa zen emberaz esaldiekin eta testu luzeekin idazten hastea. Ezinbestean, hitzek eta hizkiek izan behar zuten abiapuntua.

Mechak proposatutako hama-bi bokaleko eta hogeiki kontsonante alfabetoa adostu ondoren, hizki horien bidez hitzak sortu behar zituzten. Gauza bakoitza bere komunitateak nola esaten den adierazten zion irakasle bakoitzak besteari. Sistema ortografikoaren egokitasuna adosteko, tresnak sortzen hasi ziren.

Lehenik eta behin, fonema batekin osatutako hitz zerrenda labur bat egin zuten. Zerrenda horretatik hitz bat aukeratu ondoren, haren marrazkia egin zuten. Fonema guztiekin berbera egin ondoren, *epera pedea* izeneko irudi alfabetoa sortu zuten —goiko irudian ikus daitekeen moduan—, ikastaroan jorratutako hiru aldaeretan. Ordura arte emberaz alfabetatu gabeak zirentzat

ariketa erraza eta interesgarria. Gero irakasle bakoitzak bere komunitatera eramateko ere ariketa egokia zen.

Irudi alfabetoa gorpuztu ondoren, irudi hiztegi bat eratzea zen hurrengo pausoa, *epera pedea pedei* izeneko. Eremu semantiko bidez banatu zituzten gaiak. Irakasleek marrazki bat egiten zuten, eta marraztutako objektu edo izaki horren atal idazten zituzten gero. Naturari lotuta dauden gizakiak dira emberak, eta hori argi ikus daiteke egiten dituzten marrazkien maila altuan.

Hiztegiaren eta alfabetoaren bidez hitzak sortu ondoren, esaldietara pasa behar zen. Horretarako, proposa da *ewarista bupatu* irakaslearen koaderno. Bertan norberak nahi duen guztia idatz dezake, baldintza bakarra-

Etnolinguistikako diplomatura egin zuten iaz, urrats garrantzitsua irakasleak formatzeko

Garrantzitsua ez da tresna bera sortzea, materiala nola sortzen den ikastea baizik

rekin: emberaz izkiriartzea. Apurka, aurrerapausoak ematen, garratzen joan dira proiektuak. Hala, emberazko lehenengo idazkaria dute: *Tachi pedea*. Irakasleek taldeka berri batzuk idatzi zituzten. *Pakuru* liburuxka, berrix, gai zehatz baten inguruan ardatz-tutako materiala da. Kasu honetan lurraldeko zuhaitzen inguruko liburuxka da, ezkerreko irudian ikus daitekeen moduan. Arbola bakoitzak eskema berari jarraitzen dio. Azkenik, *thachi tua*-k lurraldeko mapak bildu nahi ditu: baratzeetakoak, herrixketakoak, ibaietakoak... etorkizuneko toponimia osatzeko.

Lehen pausok besterik ez da, baina ikastaroetako parte hartze handiak argi adierazi du emberak euren hizkuntza idazteari garrantzia ematen diotela. Denbora gutxian jauzi kualitatiboa eman dute, etorkizuneko eskolan txertatu ahal izateko, emberazko eskolak errealitatea izateko. Bideragarria dela ikusi dute, baina orain urratutako bidean sakondu behar dute. Horregatik, beharrezkotzat jo dute irakasle gehiagoren parte hartzea eta urrutiko komunitateko irakasleak formatu beharra. Urteetako agrafismoa eta bazterketa alde batera utzi ondoren, zabaltzea erabaki dute. Barreñak azaldu duenez, orain dela gutxi arte hedabideei embera komunitatearen berri ez emateko eskatu zuten. Orain, berrix, ahalik eta oihartzun gehien lortzeko eskatu diete, munduak haien berri izan dezan.